

BEZEROAREKIKO HARREMANA

Bezeroekiko harreman egokiak, seguruak eta epe luzekoak izan daitezen ondoko ekintzak egingo dituguz:

- Erabiltzaileen fidelizazioa eta eduki pertsonalizatuen eskaintza:

Erabiltzaileak profila sortzen duen unean, bere interesen, beharren eta lehentasunen arabera eskaintza pertsonalizatuak jasoko ditu. Horri esker, erabiltzaile bakoitzari neurritan egindako notifikazioak bidaliko zaizkio, jasotako informazioa erabilgarria eta erakargarria izan dadin.

Gainera, erabiltzaileak egiten duen harpidetzari esker, plataforman urte osoan zehar aktibo mantenduko da, edukietara eta zerbitzuetara etengabeko sarbidea izanik. Estrategia honek erabiltzaileen konpromisoa eta jarraipenasendotzea ahalbidetzen du, eta epe luzeko harremana sortzen laguntzen du, bai zerbitzuaren erabileran bai komunitatearekiko atxikimenduan.

- Notifikazioak aplikazioaren bidez:

Bezeroen arreta funtsezkoa eta garrantzitsuenetarikoa da, eta horregatik aplikazioaren bidez notifikazioak bidaltzea oinarritzko tresna dela iruditzen zaigu. Notifikazioen bitartez erabiltzaileekin informazio garrantzitsua partekatuko dugu uneoro, hala nola berriak, chat-eko mezu berriak, abisuak eta bestelako oharak. Berriak edo oharak izan daitezke bere interesekoa izan daitekeen logela berri bat, eskaintzak, etab. Horrela, bezeroek aplikazioarekin konektatuta egongo dira etengabe, eta informazioa modu erraz, azkar eta egokian jasoko dute.

- Balorazioak:

Aplikazioan parte hartzerakoan balorazio prozesu bat egingo da bezeroen artean, egonaldiarekin gustura sentitu badira 5 izar jarriko dabez, aldiz esperientzia txar bat euki badabe izar gutxiago jarriko dabez. Adibidez: Izar gutxi badauzkazuz zure etxea aplikazioak gutxiago erakutsiko dau.

- Notifikazioak Email bidez:

Aplikazioaren notifikazioen antzera erabiliko dugu kanal hau, baina kasu honetan erreserbei lotutako informazioa eta datu zehatzak bidaltzeko izango da. Horren bidez, erabiltzaileek egindako erreserben inguruko datu guztiak jaso ahal izango

dituzte, hala nola data, ordua edo bestelako oharrak. Era berean, erreserbaren berrespena ere kanal honetatik bidaliko da, erabiltzaileek informazio argia eta zuzena uneoro eskuragarri izan dezaten.

- Aplikazioan chat integratua:

Bazkideen artean informazioa modu erraz, azkar eta seguruan trukatzeko aukera emango duen chat integratu bat egongo da. Tresna honi esker, komunikazioa plataformaren barruan bertan egingo da, eta ez da beharrezkoa izango bazkideek haien zenbaki pertsonalak edo bestelako datu pribatuak elkarri ematea. Horrela, pribatutasuna bermatuko da, harremanak erraztuko dira eta informazioaren trukea modu antolatu eta eraginkorrean gauzatu ahal izango da.

- Erabiltzaileen harpidetza:

Urteko harpidetzarekin lortzen dogu bezeroek gutxienez urte bat geratzea.

- Gonbidaketak:

Bezeroak haien lagunei gonbidaketak egin ahalko dabez.